

Idazkera lantzen: aldez aurretiko erabaki bat eta zenbait ondorio

Pello Esnal

Idazten ikastea da alfabetatzearen lanik zailena eta nekezena. Euskaraz idazten ere ikasten du euskalduntzen ari denak. Euskaraz idazten bada-kiela erakutsi behar du alfabetatzen nahiz euskalduntzen aritu denak, EGA agiria lortuko badu.

EGA agiriak eskatutako gaitasun-maila lortzeko beharrezko dena, ordea, are beharrezkoago gertatzen da ondoren, oinarritzko gaitasun-maila areagotu nahi denean.

Eta berez zaila dena, alabaina, zailago gertatzen da euskaraz. Eta agiri-koa da arrazoia: euskal prosa oraindik gordin samarra egotea. Zailtasun horri ere aurre eman beharko dio, hortaz, bere idazkera landu eta hobetu nahi duenak.

Euskal prosagintzan begiz jotako bi korapilo aurkeztu genituen ZUTA-BE 31.ean: atzera-kargarena eta pausaldiek sortutakoa. Eta hurrengo aleetako utzi genuen horien askatzea.

Orduz geroztik, ordea, bi liburu plazara ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, korapilo horiek askatzen lagun diezaguketenak: Eskarne Lopetegiren “Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma” eta Joxe Ramon Zubimendi eta bion “Idazkera-liburua”. Esaterako, “Idazkera-liburuan” jasoa dago bi korapiloen arazoa eta urratua askabidea ere.

Horiek horrela, hemen ez gara liburuan esanak errepikatzen hasiko. Baina ez zaigu gaizki etorriko puntu batean geratzea. Pausaldiarekin du zerikusia. Sujetuaren eta predikatuaren arteko pausaldiaz ihardungo dugu batipat, baina aditzaren eta osagaien artekoaz ere ahaztu gabe.

* * *

Arazoa zertan den

Euskaraz hizketan eta irakurtzen ari garela, sarritan egiten dugu pausa sujetuaren eta predikatuaren artean. Adibidez:

- Ordubateko tren / hamar minutu beranduago etorriko da.
- Zaintzen zaituen medikuak / kontuz ibiltzeko aholkatu dit.

Pausa hori ez da beti egiten, ordea. Esaterako, honela ere esan daiteke bigarren esaldi hori:

- Zaintzen zaituen medikuak aholkatu dit kontuz ibiltzeko.

Ezberdin esaten da, jakina, “zer aholkatu dizu?” edo “nork aholkatu dizu?” galderari erantzunez; baina ez batean eta ez bestean egiten da pausarik sujetuaren eta predikatuaren artean.

Sujetuaren eta predikatuaren artean pausa denean, nola adierazi pausa hori? Hor sortzen da arazoa. Hona hemen bi lagunen arteko hizketa, arazo horren adierazgarri:

- A** Baietz, ba, baietz: arazo korapilatsua sortzen digula sujetuaren eta predikatuaren arteko pausak!
- B** Nik ez diat, ba, arazorik ikusten: hizketan pausa egiten denean, idaztean koma jarri, eta kitto!
- A** Ez duk, ordea, beti beharrezkoa: esaterako, esaldia laburra denean. Ez gaituk hasiko, ba, testu bat alferrikako komaz betetzen...
- B** Ba, orduan, komarik behar ez denean, jarri ez, eta kitto berriro ere!
- A** Erraz konpontzen dituk hik gauzak!
- B** Arau errazagorik!
- A** Baina hori ez duk araua. Hori arazoaren aurrean begiak ixtea duk, edo norberekerian erortzeko ate guztiak zabaltzea, edo errazkeria, edo axolagabekeria, edo denak batera...
- B** Edo arauen menpe erori gabe bizitzen jakitea!
- A** Baina idaztea komunikazio duk, eta komunikazio orok dizkik bere arauak, mezu-igorleak eta mezu-hartzaileak jakin behar dituztenak.
- B** Baldin eta erotuko ez badira...
- A** Ez zegok erotu beharrik. Arau guztiekin gertatzen duk berdin: hasieran oztopo izan arren, baliabide eta lagungarri gertatzen direla ikasi ahalean.
- B** Hala izango duk. Baina zer ikusi zeukak kontu honek guztiak euskararen irakaskuntzarekin?
- A** Handia. Batetik, irakasleek ere jakin behar dutela euskaraz idazten. Bestetik, alfabetatzea horixe dela, besteak beste: idazten ikastea. Gainera, euskaldun berriek ere ikasi behar dutela idazten, neurri batean edo bestean...
- B** Ondo zegok. Ba, arautu eta kitto! Horretarako zegok Euskaltzaindia.
- A** Baina Euskaltzaindiak ez dik erabaki, ordea.
- B** Eta idazleek? Horiek ere esan beharko ditek, ba, zerbait...
- A** Hor ere denetik zegok. Batetik, arazoaz jabetu ez direnak; eta bada-
kit: konturatu ezean, jai. Bestetik, arazoaz jabetu arren, araurik gabe idazten dutenak...
- B** Horietara biltzea onena!

- A Ez gaituk lehenera itzuliko. Bai baitzegok, gainera, arazoari askabi-dea aurkitu dionik...
- B Badagoela? Kito, beraz.
- A Kito, ba.

Horraino elkarrizketa, arazoaren adierazle. Ikus dezagun nola konpon daitekeen.

Konponbidea
Oinarrizko araua

Hemen ere ez dago asmatzen ibili beharrik. Nahikoa dugu bestek egin-dakoaz baliatzearekin. Hala egin dugu “Idazkera-liburuan” ere. Hangoak dira ondorengo zenbait pasarte.

Honela adierazi dugu komaren erabileraren 1. araua:

“Inoiz ez da koma bakar bat jarri behar sujetuaren eta aditzaren artean.” (33. or.)

Eta honako ohar hau erantsi diogu arau horri orri-barrenean:

“Arau hau orokorra da euskararen inguruko hizkuntza landu guztietan. Euskal idazle guztiek, ordea, ez dute bere horretan onartu izan; oso arazo korapilatsua baita. Baina zirt-zart egin behar eta, Mitxelena hartu dugu gidari: oso ongi ezagutzen zituen klasikoak, hizkuntzalari bikaina zen eta, horrez gainera, euskal prosa modernoaren guraso. Nekez aurkituko dugu gidari egokiagorik! Dena den, *Joskera* atalean azalduko dugu arau honi buruzko xehetasun gehiago.”

Joskera atalean dugu, besteak beste, Mitxelenaren jokaera, zenbait adibidez hornitua (221-225. or.): nola sujetuaren eta predikatuaren artean ez zuen komarik erabiltzen, nahiz eta luzea izan esaldia; nola koma arteko zatiz baliatzen zen zenbaitetan sujetuaren eta predikatuaren arteko pausaldia adierazteko; nola badagoen salbuespen bat, mintzagaia dela eta...

Arau erabakiorra

Ez dago esan beharrik: kontuan hartuz gero, arau honek asko baldintzatzten du euskal prosa; erabiltzen jakinez gero, asko errazten irakurlearen lana.

Arau honen argitan ulertzen da, besteak beste, Koldo Mitxelenaren idazkera; arau honen argitan eta horren antzekoa den beste honetan: “aditzaren eta osagarrien artean ere ez da koma bakar bat sartu behar”. Bi arau horiek bete beharrak darama zenbaitetan koma artekoak erabiltzera.

Baina ez gara soilik Mitxelenaren idazkeraz ari, jakina. Arau horiek daude beste zenbait idazkeraren oinarrian ere. Euskal prosak ezin ahaz ditzake arau horien atzean dauden arazoak. Horiei ere heldu beharko die noizbait Euskaltzaindiak.

*Koma artekoak
baliabide*

Bi arau horiek onartuz gero, oso baliabide egokiak gertatzen dira koma arteko zatiak: egoki baino egokiagoak baitira pausak adierazteko.

Ez dugu urrutira joan behar adibide bila. Hona hemen hiru esaldi, lantxo honen sarrerako lerroketatik hartuak:

- EGA agiriak eskatutako gaitasun-maila lortzeko beharrezko dena, ordea, are beharrezkoago gertatzen da ondoren...
- ...berez zaila dena, alabaina, zailago gertatzen da euskaraz.
- Zailtasun honi ere aurre eman beharko dio, hortaz, bere idazkera landu eta hobetu nahi duenak.

Horra hor *ordea*, *alabaina* eta *hortaz* koma artean, sujetuaren eta predikatuaren arteko pausa adierazten eta irakurketa errazten (eta idazlearen ahaleginaren lekuko).

Ez dira, noski, koma artean idazten diren hitz bakarrak. Badira gehiago ere. Batzuk hitz solteak dira eta beti idazten dira koma artean; beste batzuek, berriz, bizpahiru hitzeko katea osatzen dute, beti koma artean idazten dena; baina, azken batean, edozein hitz edo hitz-kate idatz daiteke koma artean, baldin eta etena adierazten badute. Ez ditugu hemen denak banan-banan azalduko. (Besteak beste, Eskarne Lopetegiren liburuan ditugu lehen bi multzoko batzuk, 213-232. orrialdeetan. Nahiz eta denak koma artekoak izan ez, bi zerrendatan ematen zaizkigu esaldien arteko hainbat lotura eta lokailu. Bestalde, lokailuei emana dago, oso-osorik, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Lehen Urratsak - III. Lokailuak* liburua.)

Dena den, hona hemen zenbait hitz eta hitz-multzo, koma artean idazten direnak:

Adibidez, agi danean, agian, alabaina, aldiz, alegia, azken batean, azken finean, azkenean, azkenik, ba(da), beraz, berriz, bestalde, besteak beste, bide batez, bidenabar, dena dela, dena den, egia esan, esate baterako, esaterako, gainera, haatik, hain zuzen, hain zuzen ere, hala eta guztiz ere, hala ere, hau da, hortaz, hots, izan ere, jakina, nolana ere, noski, ordea, orduan, ostera...

Badira beste zenbait forma ere, koma artean joan beharrekoak eta zeregin bera bete dezaketenak: lehenengo eta behin, deikiak (irakurle, adiskide hori...); kontuak kontu, legeak lege, hitzak hitz, esanak esan, entzunak entzun... eta antzeko formak; edo koma artean ere jar daitezkeenak, kasu jakin batzuetan: bai, bai zera!, batzuetan, bukatzeko, damurik, eskerrak!, ez, ezta hurrik eman ere!, gaixoa!, gajoa!, hara!, inolako zalantzarik gabe...

Baina kontua ez da, jakina, edozein hitz edo hitz-multzo koma artean jartzea; eta ezta koma arteko horiek nolana ere (esana-hari edo idatziaren hariari begiratu gabe) edo edonon (pausaz kanpo) jartzea ere. Horien erabilera ere ikasi eta irakatsi beharko dugu idazmena lantzean.

Zenbait adibide eta aribide

Mila hitzek baino gehiago argitzen omen du askotan adibide batek. Eta iharduna bezalakorik ez omen dago zenbait gauza ikasteko. Horixe egi-tera goaz lantxo honen amaieran: bi adibide ematera eta zenbait aribide proposatzera.

Lehen adibidea EHAAtik hartua

Behin baino gehiagotan gaitzetsi izan dugu geure boletin ofizialeko eus-kara (eta euskara bera baino gehiago bertako jokabidea: behin eta berri-ro erdaratik itzuli beharra, behin eta berriro euskara erdararen morroi bihurtzea...). Baina ez da, ez, bertako dena gaitzesgarri. Hona hemen, esaterako, erabaki baten zati bat, jatorrizko erdaraz lehenik eta itzulpe-nezko euskaraz ondoren (gureak dira azpimarrak). Merezi du.

A su vez, el Decreto 214/1986, de 14 de octubre, sobre clasificación de puestos de trabajo de la Administración de la Comunidad Autónoma, aprobó junto con el sistema de clasificación de puestos una importante modificación del sistema retributivo, estableciendo determinadas cuantías de retribuciones brutas por el nivel de clasificación, y posibilitó, a través de su Disposición Transitoria Quinta que el personal que fuera transferido o accediera a la Comunidad Autónoma con posterioridad al Decreto, una vez hubiera sido clasificado su puesto, podría optar por la homologación, conforme al procedimiento que hubiera determinado, en su caso, la fecha tope a contar a partir de la clasificación del puesto en que poder ejercitar la opción.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren lanpostuen sailka-penari buruzko urriaren 14ko 214/1986 Dekretuak, *bestalde*, lan-postuen sailkapenaren sistemarekin batera ordainketa sistemaren aldaketa nabaria onartu zuen: sailkapen mailen arabera, zenbait ordainsari-kopuru gordin zehatz finkatu zituen; *horrez gainera*, aldibaterako xedapenetatik bostgarrenaren bidez, dekretu hori bai-no geroago Euskal Autonomi Elkartera eskualdatu edo heldutako langileek, behin beren lanpostua sailkatu ondoren, homologazioa-ren aukera egin zezaketela onartu zuen. *Horrela*, hartarako finkatu zen arauzko ihardunbideari jarraitu beharko zitzaion eta, kasua iza-nik, ihardunbide horrek zehaztuko zukeen, lanpostuaren sailkapena egin eta gero, aukera horretaz baliatzeko azken eguna zein izango litzatekeen.

Merezi duenez, azpimarra ditzagun zenbait puntu:

- Aintzat hartu ditu itzultzaileak goian aipatutako bi arauak:
 - 1) inoiz ez da koma bakar bat jarri behar sujetuaren eta aditzaren artean eta 2) aditzaren eta osagarrien artean ere ez da koma bakar bat sartu behar.
- Euskal testuaren argitasunak eta ulergarritasunak ez diete batere inbi-diarik erdal testuarenei. Are gehiago: ez diete batere zorrik ere. Argi-tasun eta ulergarritasun horiek lortzeko, erdal testutik at bilatu behar izan ditu itzultzaileak baliabideak. Ikus ditzagun zer-nolakoak.

- Zatiketa: hiru zati egin behar izan du [bi puntu (:), puntu eta koma (;) eta puntu (.) erabiliz, hurrenez hurren] berez zati bakarra zena.
- *Horrez gainera* eta *horrela* lokailuak erabili ditu esaldiak elkarrekin lotzeko.
- Benetan azpimarragarria da hasierako *a su vez* erdal lokailuaren itzulpena; azpimarragarria eta eredugarria: *bestalde* lokailuz itzuli du (lokailu bat bestearen ordain) eta sujetua eta predikatua bereizteko erabili (erdal testuak bestela bereizi ditu).
- Ohar, gainera, nola jokatu duen beste bi etenaldi egiteko: “behin beren lanpostua sailkatu ondoren” tartekatuz sujetuaren eta predikatuaren artean, eta “lanpostuaren sailkapena egin eta gero” sartuz aditza eta osagarri zuzenaren artean.

Bigarren adibidea
Orixeren “Jainkoaren
billa” liburutik hartua

Orixeren “Jainkoaren billa” liburuaren eskutik dakargu bigarren adibidea.

Orexarraren testua 17. orrialdean hasten da guk erabilitako liburuan (Etor, 1971, Bilbo). Ba, 21. orrialdean dago, oker ez bagabiltza, sujetuaren eta predikatuaren arteko lehenengo koma. Hurrengo, berriz, 33.ean. Hona hemen:

- Eize aiek, lo dauden pixtietan eta kabietan egiten dute sarraskia ta erio-tza.
- Gure anima, bera nor danaz konturatzen da.

Salbuespentzat hartu beharrean gaude komaren erabilera hori Orixerengan; hain da bakana. Bestela gertatzen da, ordea, esaterako, liburu bera- ren kontra-azalean. Hona hemen zati bat, dagoen-dagoenean:

- ORIXE'k, bere euskal-zitua, “Euskaldunak” poeman eman zigun. Orixe'k, bere krixtau-zitua, liburu ontan ematen digu. Ura, giputz, bizkaitar eta lapurtarrek Uitzi'n erein azitik zetorkion. Au, amona Mariaxuntzik biotze- an ereinekotik datorkio. Euskaldunek, ari ainbat esker eman bezaiote oni. Dakitela naiz ez dakitela, “Jainkoaren billa” dabilzan guziek, or arki- tuko dute Arenganako bidearen izena ta izana: Jesukrixto, bide bakarra eta betea.

Sujetuaren eta predikatuaren arteko koma gehiago daude hor, bederatzi lerrotan, Orixeren hainbat orrialdetan baino.

Zenbait aribid

Luze jo dezakegu adibideak eta adibideak ekarriz. Gure *Idazkera-libu- ruan* ere badago hainbat. Baina adibidetik aribidera pasa beharra dago. Azken batean, adibide horiek ere horixe dira: aribide baten ondorio.

Beraz, aribide batzuk proposatuz bukatuko dugu honako lantxo hau, bakoitzak bere bidea urratzeko aukera izan dezan. Bi besterik ezin izan gure proposamenak: idatziz ihardutea eta arretaz irakurtzea, goian

emandako arauak nola betetzen diren edo ez diren erreparatuz. Gero eta aberasgarriagoa gertatzen da aribidea.

Irakurtzeko, adibidez, badago non eta zer aukeraturik. Hona hemen izenburu eta aribide batzuk:

- Mitxelenaren *Euskal idazlan guztiak* (Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak, 21-29). Emandako bi arau horien harian irakurri eta salbuespenak aurkitu (gutxi, baina badaude eta), eta erreteriarra maisutasunaz jabetu berriro ere.
- Koldo Izagirreraren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (Elkar, 1992). Mitxelenarekin bezalako irakurketa egin.
- Anjel Lertxundiren *Kapitain Frakasa* (Erein, 1991) aztertu. Literatur balioaz aparte, aipatzekoa eta goraiatzekoa da, hain zuzen, Anduk euskal joskera lantzen egindako aparteko lana.
- Joxe Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak* (Elkar, 1992). Joskeraren aldetik ere aztertzea merezi du. Hain zuzen ere, ez baitu lan-txo honetan aipatutako araurik betetzen.

Baina, oro har, edozein idazlan irakur eta azter daiteke bi arau horiei (eta, batez ere, arau horien azpian dagoen arazoari) erreparatuz. Baita ZUTABE hau ere.

Izan dadila gure idazmena lantzeko.